

PROIEKTU BATEN LABURPENA

- 1 **Libre da informazio hutsa (datuak, datak, gertaerak) eta ideiak erabiltzea.** Hainbat iturritatik bildu dezakezu informazioa, eta zure hitzekin kontatu. Ez ahaztu iturriak aipatzea!
- 2 **Baimena behar da irudiak eta testuak erabiltzeko.** Erabiltzea egon daiteke baimenduta.

Aipuak: Zure lanean erabil dezakezu lan baten zati bat, betiere aipu, analisi, iruzkin edo iritzi kritiko gisa jasotzen baduzu eta erabilera hori irakaskuntza- edo ikerketa-xedearekin egin bada. Erabilitako lanaren iturria eta egilearen izena aipatu behar dituzu. Aipuak komatxoekin eta erreferentzia bibliografikoarekin markatzen dira.

Egilearen baimenarekin: Zure erabilera ezin bada babestu aipu-mugaren barruan (zati bat baino gehiago bada, irakaskuntza-xederik ez badu, eta abar), zuzenean eska diezaiokezu baimena egileari, eskubideen titularrari edo hura ordezkatzeko duen jabetza intelektualeko eskubideen erakunde kudeatzaileari.

Ikastetxeetarako egile-eskubideen lizentziarekin: Eskanea ditzakezu liburu, aldizkari eta egunkarien zatiak, ikasleekin partekatzeko. Egin daitezke liburu, aldizkari eta egunkarien fotokopia partzialak ere, eta ikasleen artean banatu.

Creative Commons lizentzia batekin: Egiatzatu lizentziaren ikonoak, zer egin dezakezun jakiteko. Irudiaren ondoan adierazi behar dira Creative Commons lizentziaren sinbolarik eta egilearen izena.

Libre da babes-epea amaituta daukaten obrak erabiltzea.



1. LABURPENA

1

- 3 **Besteren irudiak erabiltzea.** Eskatu irudi bat argitaratzeko eta erabiltzeko baimena egileari eta bertan ageri diren pertsoneri.
- 4 **Baimena behar da musika erabiltzeko.** Baimen hori SGAEen edo SEDAn lor daiteke, baita AIE eta AGEDIn ere, eta dagokion ordainsaria pagatu behar da; bestela, Creative Commons lizentziarekin edo beste lizentziaren batekin balia daitekeen musika bila daiteke Interneten. Irakurri arretaz erabilera-baldintzak.
- 5 **Bideo bat zure lanaren parte gisa.** Bideo bat edo haren zati bat norberaren lan batean erabiltzeko, egilearen edo egileen baimena behar da. Baimena egilearengandik edo egile-eskubideen titularrarengandik lor daiteke, edo eman daiteke Creative Commons lizentzia batekin ere. Baimenduta dago zure lanean, webgunean edo blogean Interneteko bideo baterako zuzeneko esteka bat sartzea, haren jatorria legezkoa bada. Gogoratu baimena behar dela bideoak ikasgelan proiektatzeko.
- 6 **Iturriak aipatzea.** Gogoratu: adierazi zure proiektuan kontsultatutako iturri guztiak eta egilearen datuak.
- 7 **Proiektu bat interneten argitaratzea.** Proiektu bat argitaratu nahi baduzu Interneten, egiaztatu badituzula eskubideak erabiltzen dituzun lan guztiak argitaratzeko, hala nola irudiak, musika eta bideoak.



EGILE ESKUBIDEEN IKASGELA

CEdro

© Kapiosto ry

